



ku - ku!

haurrekin hitz egiten hasteko





kaixo!

Euskara Zerbitzuak badaki guraso askok seme-alabak ingurune elebidunean edota eleanitzean hezteko kezka ugari izaten dituzuela.

Ku-Ku liburuxka egin dugu seme-alabak giro eleanitzean hezi nahi dituzuen gurasoontzat. Liburuxkarekin batera, app-a ere garatu dugu egitasmo honetan parte hartzen dugun udalek eta mankomunitateek. Liburuxka lau zatitan banatuta dago; hasieran, umearen hizkuntza trebetasunaren garapen prozesua azaltzen da, eta seme-alabak eleanitzasunean hezteak sortzen dituen hamaika kezkaren eta galderaren erantzunak jasotzen dira; jarraian, hiztegi laburra agertzen da, hainbat ataletan berezita; ondoren, umeekin berba egiterakoan egiten ditugun akats ohikoenak zelan zuzendu behar diren jaso dugu; eta, amaiera aldean, seme-alabekin gozatzeko jolasak eta abestiak aurkituko dituzue.

Liburuxka, gainera, www.emangiltza.eus webgunearen Ku-Ku atalean eta beren berez sortu dugun aplikazioan ere ikusgai duzue. APPa Android zein IOS sistema eragilea duten tabletetan zein gailuetan erabil daiteke, eta App Store-tik edo Google Play-tik jaitsi dezakezue. Liburuxkaren edukia ikusteaz gain, bertan, hainbat ariketa egin ditzakezue, euskarazko hitzak eta esamoldeak entzuteko aukera ere baduzue, eta, gainera, etxeko gaztetxoekin jolastuz gozatzeko aukera ere eskaintzen dizue. Animatu eta erabili!

Umeek hizkuntza bat baino gehiago ikas dezakete erraz-erraz. Etxean, eskolan edota kalean ikas ditzakete hizkuntzok. Hizkuntzak jakitea beste edozein abilezia bezalakoxea da; ondo moldatzeko, umeak erabili egin behar du, eta, horretan, gurasoon laguntza ezinbestekoa da.

**Umetan erraza da euskara ikastea.
Lagun iezaiezu!**

- Egileak: **Alkarbide**, Bizkaiko Euskara Zerbitzuen Bilgunea
Urolako Komunikazio Taldea Koop. Elk.
- Lege gordailua: SS-610-2013 (11. edizioa)
- Inprimaketa: GERTU



¡hola!

En el Servicio de Euskera somos conscientes de las dudas y preocupaciones que a muchos padres y madres os surgen a la hora de plantearos que vuestros hijos e hijas crezcan en un entorno bilingüe o incluso plurilingüe.

Por ello, el Ayuntamiento o Mancomunidad ha elaborado la publicación Ku-Ku, con el objetivo de facilitaros el camino a los padres y madres que hayáis decidido educar a vuestras hijas e hijos en el plurilingüismo. El libro se divide en cuatro partes: al comienzo, se explica el proceso de desarrollo de las destrezas lingüísticas de los niños y niñas y, además, se incluyen respuestas a muchas dudas y temores que surgen al educar en el plurilingüismo. La segunda parte consta de un diccionario euskera-castellano con diferentes apartados. A continuación, se han recopilado algunos de los errores más frecuentes que cometemos al hablar en euskera con nuestras hijas e hijos; y, para finalizar, os ofrecemos algunos juegos y canciones.

Podéis consultar la publicación en el apartado Ku-Ku de la página web www.emangiltza.eus y también en la aplicación que hemos creado para ello. La APP está diseñada para utilizarla en móviles y tabletas, tanto para Android como para IOS. Podéis descargar la versión IOS en la App Store y la versión Android en Google Play. Además de consultar el contenido de la publicación, podéis realizar ejercicios, escuchar palabras y expresiones en euskera y disfrutar jugando con los más pequeños. ¡Animaos a utilizarlo!

Los niños y niñas pueden aprender más de una lengua con mucha facilidad, y pueden aprenderlas en casa, en la escuela o en la calle. El proceso de aprendizaje de un idioma es igual al aprendizaje de cualquier otra tarea; para manejarse con destreza, necesitarán mucha práctica, y, para ello, la ayuda de los padres y madres es imprescindible.

**En la infancia se aprende euskera con facilidad.
¡Ayúdales!**



aurkibidea índice



• UMEAREN GARAPEN FASEAK FASES DEL DESARROLLO INFANTIL	5. or.
• ELEANIZTASUNEAN HEZTEKO AHOLKUAK CONSEJOS PARA EDUCAR EN EL PLURILINGÜISMO.....	10. or.
• HIZTEGIA DICCIONARIO	12. or.
• HORRELA EZ! ¡ASÍ NO!.....	21. or.
• ARIKETAK EJERCICIOS.....	22. or.
• HAURREKIN JOLASTEKO JUEGA CON ELLOS Y ELLAS	24. or.
• ABESTU! ¡CANTA!.....	42. or.
• INFORMAZIO OSAGARRIA INFORMACIÓN COMPLEMENTARIA.....	48. or.

umearen garapen faseak Fases del desarrollo infantil



Umearen garapenerako oso garrantzitsuak dira lehenengo urteak. Hizkuntza adimena eta gaitasuna hasierako urte horietan garatuko du. Pat Jarvis, Holly Fulghum-Nutters eta Leslie Shelton-ek egin duten *Smart ways to teach your child* liburuan oinarrituta 0-3 urte bitarteko umeen hizkuntza adimenaren garapena jaso da atal honetan.

Los primeros años son fundamentales en el desarrollo de los bebés. La inteligencia lingüística y el desarrollo del lenguaje se produce en estos primeros años. En este apartado se explica el desarrollo de la inteligencia lingüística desde los 0 a los 3 años según el libro 'Smart ways to teach your child' de Pat Jarvis, Holly Fulghum-Nutters y Leslie Shelton.

0 - 6 hilabete



Hizkuntza adimena

Ezaugarriak

- Umeak oraindik ez daki zein den hitzen esangura, baina gertukoaren ahotsa ezagutzen du, baita hitzek zer doinu duten ere.
- Zarata edo soinuak egiten dituztenean zerbait gertatzen dela adierazten ari dira. Hauxe da komunikazioaren hastapena.

Zer egin?

- Hitz egin haurtxoarekin zaintzen duzuen bitartean.
- Erabili ume hizkera.
- Erabili doinu goxo eta abesti erakoa.
- Begiratu begietara hitz egitean.

Inteligencia lingüística

Características

- El bebé no conoce las palabras, pero sí reconoce la voz de los familiares cercanos y los sonidos de las palabras.
- Cuando emite sonidos está expresando que algo pasa. Son los comienzos de la comunicación.

¿Qué hacer?

- Hablar con el bebé mientras lo cuidáis.
- Utilizar palabras del lenguaje infantil.
- Utilizar tonos dulces y melódicos
- Mirarle a los ojos al hablar.



Haurtxoak ia denbora guztia lotan, jaten eta kuxkurtuta pasatzen badu ere, ikasten ari da. Erabili denbora tarte horiek jolas egiteko.

Aunque el bebé pase la mayoría del tiempo durmiendo, comiendo o acurrucado, está aprendiendo. Aprovechad esos ratos para jugar con el bebé.

6 - 15 hilabete



Hizkuntza adimena

Ezaugarriak

- Haurtxoek hitz egiten hasi aurretik ulertzen dute hizkuntza. Hitz egin zure umetxoari eten gabe.
- Ume txikiek era guztietako zaratak edo soinuak egiten dituzte. Zure umea hizkuntzaren erritmoa eta soinua ikasten ari da.
- Zure umetxoak hitzak esaten hasten denean ume-hitzak esango ditu. Adibidez, 'pupu' mina esateko. Erakutsi pozik zaudela ikasten ari delako eta erabili hitz horiek. Hale ere, ona da zure umetxoak benetako hitza zein den jakitea.
- Zure umetxoak soinuak edota zaratak egiten dituenean erantzun. Saiatu soinu horiek errepikatzen.

Zer egin?

Adibidez:

- Egin zure umetxoaren familia albuma eta erabili familiari buruz hitz egiteko.
- Erakutsi zure umetxoari hitz berriak, gauzak seinatu eta izenak esan.
- **Linternaren jokoarekin** erakutsi hitz berriak. Ikusi *Haurrekin jolasteko* atala.

Inteligencia lingüística

Características

- Los bebés comprenden la lengua antes de empezar a hablar. Habla a tu hijo o hija continuamente.
- Los bebés emiten todo tipo de sonidos. Tu hijo o hija está aprendiendo los sonidos y el ritmo del lenguaje.
- Las primeras palabras de tu bebé pertenecerán al lenguaje infantil. Por ejemplo, 'aga' para decir agua. Debes mostrarle tu alegría porque está aprendiendo, y debes utilizar esas palabras. Aún así, es bueno que tu bebé conozca también las palabras reales.
- Cuando tu bebé emita sonidos, respóndele. Intenta repetir los mismos sonidos.

¿Qué hacer?

Por ejemplo:

- Realizar el álbum familiar del bebé y utilizarlo para hablar sobre la familia.
- Enseñar al bebé palabras nuevas, señalar las cosas y mencionar sus nombres.
- Enseñarle palabras nuevas con **el juego de la linterna**. Ver la sección *Juega con ellos y ellas*.

15 - 24 hilabete



Hizkuntza adimena

Ezaugarriak

- Haurtxoek hizkuntzaren doinua eta erritmoa, soinuak edota zaratak eginez praktikatzeko dute.
- Haurtxoek adin ezberdinetan ikasten dute hitz egiten. Ohikoena gauzen izenak esaten hastea da: "burrin-burrin, txitxia...". Ondoren, harremanetarako hitzak ikasten dituzte: "ez!, agur-agur, kaixo!"

Zer egin?

Adibidez:

- **Linterna jokoaren** bidez hitzak erakutsi. Ikusi *Haurrekin jolasteko* atala.

Inteligencia lingüística

Características

- Los bebés practican la entonación y el ritmo de la lengua emitiendo sonidos.
- No hay una edad concreta para aprender a hablar. Lo más habitual es que comiencen diciendo los nombres de algunas cosas: "brum-brum, cua-cua...". Más tarde, comenzarán a pronunciar palabras para relacionarse: "¡no!, ¡adiós!, ¡hola!"

¿Qué hacer?

Por ejemplo:

- Enseñarle palabras con **el juego de la linterna**. Ver la sección *Juega con ellos y ellas*.



Garai hau oso egokia da hainbat hizkuntzatan objektu ezberdinen izenak erakusteko.

Esta edad es muy apropiada para enseñarles nombres de diferentes objetos en varios idiomas.



Haurtxoek jolasean ikasten dute eta haur bakoitzak bere erara eta erritmoan ikasten du. Utz iezaiozue bere erara ikasten eta errespetatu umetxoaren ikasteko era.

Los niños y niñas aprenden jugando. Cada cual aprende a su manera y ritmo. Respetad su forma de aprender.

2 urte

Hizkuntza adimena

Ezaugarriak

- 200 hitz inguru jakiten dituzte.
- Batzuek 2 eta 3 hitzeko esaldiak osatzen dituzte.
- Soinu eta zaratekin jolas egitea eta abestea gustuko dute.
- Eurentzat edo helduentzat hitz egiten dute.
- Beste umeekin askotan erabiltzen duten esamoldea hau da: 'NIREA DAI!'
- Askok totalka hitz egiten dute urduritzean.
- Hobe da kasurik ez egitea, lasaitzeko esatea okerrerako izan baitaiteke. Medikuarekin hitz egin kontu horrek kezkatzen bazaituzte.

Zer egin?

- Berriketaldi errazekin hasi. Eta kontuan izan "umearekin" hitz egiten ari zarela eta ez "umeari" hitz egiten.
- Adibidez: "guau-guau", "Ikusten al duzu txakur handia hor?" Egin akats tontoak. Galdetu: "Hau al da (belarria ukitu) nire sudurra?"

Inteligencia lingüística

Características

- Conocen alrededor de 200 palabras.
- Algunos niños y niñas forman frases de 2 y 3 palabras.
- Les gusta jugar con los sonidos y los ruidos, y les encanta cantar.
- Hablan para sí o para las y los adultos.
- Una de las expresiones que más utilizan con los demás niños y niñas es: '¡ES MÍO!'.
- Muchos niños y niñas tartamudean cuando se ponen nerviosos/sas. Es mejor no darle importancia, puesto que decirles que se tranquilicen puede ser contraproducente. Hablar con el médico si os preocupa este tema.

¿Qué hacer?

- Comienza con conversaciones sencillas. Y ten en cuenta que estás hablando "con tu hijo o hija" y no estás hablando "a tu hijo o hija".
- Un ejemplo: "guau-guau" y "¿Ves ese perro tan grande que está ahí?" Comete errores tontos. Pregúntale: "¿Es ésta mi nariz (tocándote la oreja)?"



Umek jolas egiteko modu ezberdinak dituzte. Batzuk oso biziak dira, beste batzuk lasaiagoak. Begiratu nola jolasten duen umeak irakasteko modurik onena zein den jakiteko.

Cada niño y niña tiene su manera de jugar. Algunas son muy movidas, otros son más tranquilos. Observa cómo juegan para saber cuál es la mejor manera de enseñarles.

3 urte

Hizkuntza adimena

Ezaugarriak

- 3 urte eta erdiko ume gehienek 1.200 hitz inguru dakizkite. Horiek guztiak jakin arren, gutxiago erabiltzen dituzte.
- Zenbait umek fonema batzuk ahoskatzeko arazoak dituzte.
- 3 urteko ume batzuek totalka hitz egiten dute. Hitz egin medikuarekin hala bada.
- Hobe da patxadaz hartu eta esan nahi dutena esan arte itxarotea. Lasaitzeko eskatzea okerrerako izan daiteke.
- 'Zergatik?' galdera egiteko adina da. Batzuetan berrak jakin nahi dute zergatia. Beste batzuetan atentzioa deitu nahi dute.

Zer egin?

- Umek hitz berriak ikasten dituzte zentzua duten kontuetan entzunda.
- Ozen egindako irakurketei esker eguneroko bizimoduan entzuten ez dituzten hitzak ikas ditzakete.
- Berriketaldi errazekin hasi. Eta ez ahaztu 'umearekin' hitz egiten ari zarela eta ez 'umeari' hitz egiten.
- "Bai" eta "ez" baino erantzun gehiago eskatzen dituzten galderak egin. Adibidez, galdegin "zer uste duzu gertatzen ari dela marrazki honetan?"
- Zure hauraren 'zergatik?' galderari erantzunez ikasten lagunduko diozu.

Erantzuna ez badakizu, esan "Ez dakit. Zure ustez zer da?" edo "Goazen zergatia begiratzera".



Hiru urtekoak euren irudimena erabiltzen hasten dira. Asko ikasten dute irudimena lantzeko jolasen bidez.

Los niños y las niñas de tres años empiezan a hacer uso de la imaginación. Aprenden mucho con los juegos para desarrollar la imaginación.

Inteligencia lingüística

Características

- La mayoría de los niños y niñas de 3 años y medio conocen 1.200 palabras. Conocen más palabras de las que utilizan.
- Algunos niños y niñas tienen problemas para pronunciar algunos fonemas.
- Algunos niños y niñas de 3 años tartamudean al hablar. Habla con el médico, si es así.
- Es mejor tomárselo con calma y esperar hasta que consigan decir lo que quieren. Pedirles que se tranquilicen puede ser contraproducente.
- Es la edad del '¿por qué?'. Algunas veces tienen verdadero interés. Otras sólo quieren llamar la atención.

¿Qué hacer?

- Los niños y niñas aprenden palabras nuevas escuchándolas en su contexto.
- Leyéndoles en voz alta pueden aprender palabras que no escuchan en la vida cotidiana.
- Comienza con conversaciones sencillas. Y ten en cuenta que estás hablando "con tu hijo o hija" y no estás hablando "a tu hijo o hija".
- Pregúntale sobre cuestiones que requieran respuestas más complejas que un "sí" o un "no". Por ejemplo, "¿qué crees que está pasando en este dibujo?"
- Respondiendo a los porqués de tu hijo o hija, le ayudarás a aprender.

Si no sabes la respuesta, dile "No sé. ¿Tú qué crees?" o "Investiguemos la razón".

eleaniztasunean hezteko aholkuak

consejos para educar en el plurilingüismo



Atal honetan seme-alabak euskaraz eta gaztelaniaz edota beste hizkuntza batzuetan hezi nahi dituzuen gurasoentzako informazio erabilgarria txertatu dugu.

Este apartado recoge información útil y práctica para todos los padres y madres que queréis educar a vuestros hijos e hijas en euskera, castellano y/o en cualquier otra lengua.

Gurasoak gara giltza

Gurasoak giltza gara seme-alaben hizkuntza ohituretan. Euskara ikastera begira giltza garen neurrian, hizkuntza-ohiturei begira ere gurasook eragin handia dugu. Hala ere, gurasook umeak eleaniztasunean hezteko orduan zalantza, beldur eta kezka asko izaten ditugu. Atal honetan zalantza eta beldur horiek uxatzeko argibideak emango ditugu.

Etxea da transmisio gune nagusia

Etxea eta familia da hizkuntzak transmititzeko bide naturalena eta eraginkorra. Seme-alabek euskara ondo ikastea nahi badugu, abiapunturik onena jaiotzen direnetik etxean euskara eskaintzea da. Gainera, umeen hizkuntza-ohituretan eragin nahi badugu, zenbait jokabide zaindu behar ditugu jaiotzen direnetik; baina badakigu hori guztia gauzatzeko askotan zalantzak eta kezkek sortzen zaizkizuela eta atal honetan lagungarri izango zaizkizuen hainbat argibide emango dizkizuegu.

Los padres y madres somos la clave

Los padres y madres ocupamos un lugar fundamental en la adquisición de los hábitos lingüísticos de nuestros hijos e hijas. Al igual que somos fundamentales para el aprendizaje del euskera, también ejercemos una gran influencia en lo que se refiere a los hábitos lingüísticos. A pesar de ello, los padres y madres tenemos muchas dudas, miedos y preocupaciones a la hora de educar a nuestros hijos e hijas en el plurilingüismo. En este apartado trataremos de ayudaros a dejar de lado dichas dudas o preocupaciones.

La casa es el principal centro de transmisión

La vía más natural y eficiente para la transmisión de las lenguas es la propia casa y familia. Si queremos que nuestros hijos e hijas aprendan bien euskera, lo mejor es proporcionarles dicha lengua desde que nacen en casa, y si, además,

Zalantzak argitzeko bitarteko erabilgarriak

Guraso askok honelako zalantzak izaten ditugu: Onurarik izango dute seme-alabek eleaniztunak badira?; bigarren edo hirugarren hizkuntza ikasteak kalterik ekarriko dio lehen hizkuntzaren garapenari?; badauka desabantailarik eleaniztun izateak?; amak badaki euskara baina aitak ez, nola egin beharko genuke seme-alabekin?

Galdera horien guztien eta beste askoren erantzunak www.emangiltza.eus atarian daude. Webgune horretan hainbat atal aurkituko dituzue eta bertan zuen zalantzak argitu ahal izango dituzue. Esaterako, **tresnak** atalean Hizkuntzei zabalik: gurasoentzako gida izeneko argitalpena dago eta bertan, besteak beste, goian jasotako galderak eta erantzunak batzen dira. Horrez gain, **aholkuak** izeneko beste atal bat ere badago eta bertan ohiko zalantzak jasotzeaz gain, edozein galdera egin dezakezue eta aditu batek ahalik eta arinen erantzungo dizue. Gainera orain arte beste guraso batzuek egindako galderak eta erantzunak ere jasota daude.

Zalantzak argitzeaz gain, atari honetan gurasoentzako aholkuak, gomendioak eta baliabideak ere jasotzen dira. Beste hainbat konturen artean, seme-alabek euskara ikas dezaten gurasoentzako jarraibideak ematen dira, egoera ezberdinen aurrean zelan jokatu beharko zenuketen azalduz.



queremos influir en sus hábitos lingüísticos debemos cuidar algunos comportamientos desde su nacimiento. Sabemos que muchas veces os surgen dudas y temores a la hora de llevar a cabo todo ello, y es por ello que en este capítulo os ofreceremos unas cuantas pautas que os resultarán de gran ayuda.

Recursos útiles para aclarar vuestras dudas

Muchos padres y madres tenemos dudas de este tipo: ¿Será beneficioso para mis hijos e hijas ser plurilingües?; ¿el aprendizaje de un segundo o tercer idioma causará problemas en el desarrollo del primero?; ¿El plurilingüismo/ser plurilingüe tiene alguna desventaja?; la madre sabe euskera pero el padre no, ¿cómo debemos actuar con nuestros hijos e hijas?

*Las respuestas a todas esas y a otras muchas preguntas las encontraréis en la web www.emangiltza.eus. Allí encontraréis varios apartados que os ayudarán a aclarar vuestras dudas. Por ejemplo, en **herramientas** encontraréis la publicación titulada Hizkuntzei zabalik: guía para madres y padres, en el que se recogen las preguntas y las respuestas mencionadas anteriormente junto con otras muchas más. Hay otro apartado denominado **consejos** en el que además de recopilarse las dudas más frecuentes, podréis realizar cualquier consulta y un/a profesional os responderá lo antes posible. En este apartado, además, podréis leer tanto las preguntas que han realizado hasta ahora otros padres y madres, como las respuestas.*

En este portal no sólo se resuelven dudas, también se ofrecen consejos, recomendaciones y recursos dirigidos a los padres y madres. Se indican algunas pautas entre otros, a los padres y madres para que sus hijos e hijas aprendan euskera, y se analiza cómo deberían actuar ante distintas situaciones.

hiztegia

diccionario

Hona hemen gure umekin erabiltzeko haur hizkera hiztegia. Erabil ezazue, ikusiko duzue nola erantzuten duten.

He aquí algunas palabras para comunicarnos con nuestros pequeños y pequeñas. Utilizadlas, ya veréis cómo responden.

senideak familia

- **Ama:** ama / mamá
- **Aita:** aita / papá
- **Anaia** / hermano de chico
- **Ahizpa** / hermana de chica
- **Arreba** / hermana de chico
- **Neba** / hermano de chica
- **Neba-arrebak** / hermanos-as
- **Izeko, izeba** / tía
- **Osaba** / tío
- **Lehengusua** / primo
- **Lehengusina** / prima
- **Amama, amona, amuma** / abuela
- **Aitita, aitona, aitite** / abuelo



Zeuek ere jarri zuenak!
¡Apuntad las vuestras!

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

izenak eta adjetiboak

sustantivos y adjetivos



- **Adurtia:** ezpain inguruak beti adurrez bustita dituen haurrari esaten zaio / *baboso/a* (que tiene muchas babas)
- **Aitazuloa:** beti aitarekin nahi duen umea / *niño/a que quiere estar siempre con su padre*
- **Amazuloa:** beti amarekin nahi duen umea / *niño/a que quiere estar siempre con su madre*
- **Astopotroa, astapotroa:** astotzar / *bruto/a*
- **Barrabasa:** ume bihurria / *niño/a travieso/a*
- **Barrabaskeriak:** bihurrikeriak / *travesuras*
- **Kaka:** 1.- kaka / *caca*
2.- zikinkeria / *suciedad*
- **Kokola:** mamala / *bobalicona*
- **Kokoloa:** 1.- txotxoloa, memeloa / *bobalicón*
2.- txokolatea / *chocolate*
- **Lautxakur, lautxakurren:** katuka, katamar / *a cuatro patas, a gatas*
- **Laztana, maitea, bihotza:** umeari deitzeko hitz goxoa / *apelativo cariñoso, amor, corazón*
- **Lotia:** lo asko egiten duen umea / *dormilón/a*
- **Mamarroa, mamua, kokoa, kokomarroa:** umeak beldurtzeko / *fantasma, coco*
- **Mainosoa:** negartia, negar plantak egiten dituen / *mañoso/a*
- **Musu-merkea:** musua edonori ematen diona / *besucón/a*
- **Ninia:** haur txikia / *bebé*
- **Okerra:** ume bihurria / *travieso/a*
- **Pa | patxoa:** musua / *beso*
- **Pitxin | pitxintxu:** umeari deitzeko hitz goxoa / *apelativo cariñoso*
- **Potxingoa:** putzua / *charco*
- **Potxolo/a:** ume gozoa / *niño/a dulce*
- **Pupua:** mina, zauria / *dolor, herida*
- **Sorgina:** bizia, pizpirina / *viva, vivaracha*
- **Seina:** umea / *niño/a*
- **Tetea, petea:** txupetea / *chupete*
- **Txaloea:** zaplaztekoa / *bofetada*
- **Txantxar, mekotxoa:** txikia, eskasa / *pequeñito/a*
- **Txarritoa:** koipeztoa / *guarro*
- **Txatxurra:** esne-hagina / *diente de leche*
- **Txetxea:** umetxoa / *niño/a*
- **Txiribuelta:** itzulipurdi / *voltereta*
- **Txitxia:** okela / *carne*
- **Txoria:** Buruan jartzen den begizta / *lazo, cinta que se pone en la cabeza*
- **Txorta:** koleta, mototsa / *coleta, trenza*
- **Umemokoa:** ume-umea / *crío/a*

Zeuek ere jarri zuenak!
¡Apuntad las vuestras!

.....

.....

.....


.....

.....

.....

ekintzak acciones

- **Agur-agur:** agur / adiós
- **Apapan joan, atatantzera:** kalera joan / salir a la calle
- **Andi-andi:** paseatzera joan / salir a la calle
- **Apatxe | apatx(in):** jesarri, eseri / sentarse, siéntate
- **Arrekonkon, arrelepo, arretxiko, hankurkilo:** sorbalda gainean ibili / subirle a hombros
- **Bilin-bolaka:** txirinbolaka / dando tumbos
- **Buruz behera, ahuspez** / boca abajo
- **Buruz gora** / boca arriba
- **Fu egin:** putz egin / soplar
- **Kausk:** kosk egin / morder
- **Kili-kili:** kili-kili egin / hacer cosquillas
- **Kokoriko, kukurumio:** orkatilen gainean jesarrita / en cuclillas
- **Kuku egin:** agertu eta ezkutatu / aparecer y desaparecer
- **Kuku egon:** ezkutatuta egon / estar escondido/a, oculto/a
- **Lolo joan:** lotara joan / irse a dormir
- **Lolo:** loa hartzea, lo egin / dormirse
- **Mainak eduki | egin:** negar egin / llorar, protestar, hacer mañas
- **Pa emon | bota:** musu eman / besar
- **Pipi egin:** txiza egin / mear
- **Pupu egin:** min hartu / hacerse daño
- **Tapa-tapa, taka-taka, tipi-tapa:** ibili / andar
- **Txalo-pin-txalo:** txalo egitea / aplaudir
- **Txalo-txalo:** txaloa jo / aplaudir
- **Txasta egin:** injekzioa jarri / poner una inyección
- **Zintz egin:** mukiak kendu / sonarse, quitarse los mocos
- **Zizta:** zulatu / pinchar
- **Zurrut, txurrut:** edan / beber



Erabil itzazu. Hona hemen zenbait adibide:

Practica, aquí tienes algunos ejemplos:

- Laztana, joango gara apapan?... *Cariño, ¿vamos a la calle?*
- Pupu egin al duzu? Etorri amatxorengana, polit hori... *¿Te has hecho daño? ¡Ven con ama, cariño!*
- Apatxe aulkian!... *¡Siéntate en la silla!*
- Eman pa aitaxori... *Dale un beso a aita*

onomatopeiak onomatopeyas

- **Atxis:** doministiku / estornudo
- **Burrun-burrun, brun-brun:**
 - 1.- autoa edo bestelako ibilgailuak / coche o cualquier otro vehículo
 - 2.- trumoia / tormenta
- **Dan-dan-dan:** atea ozenki jo / tocar la puerta con energía
- **Dar-dar:** ikara / miedo
- **Dilin-dalan:** kanpaiaren soinua / sonido de las campanas
- **Dinbi-danba:** kolpeka / dando golpes
- **Dingilin-dangalan:** herrenka dabilen umetxoa / niño/a que camina aún inseguro/a
- **Et-et-et:** ez, ez / no, no
- **Fu:** sua / fuego
- **Fu-fu:** erre / quemar
- **Kili-kolo:** erortzeko zorian / suelto, a punto de caerse
- **Kisk-kask:** artaziekin moztu / cortar con tijeras
- **Krak:** hautsi / romperse
- **Mau:** haginkada / mordedura, mordisco
- **Parrast egin:** likidoa isuri / derramarse un líquido
- **Plast eman:** zaplaztekoa, belarrondokoa / bofetada
- **Plausta:** zerbait jaustean ateratzen den soinua / ruido que se produce cuando cae algo
- **Plisti-plasta, txipli-txapla:** uretan ibili, bainatu, ur azalean kolpeak ematea / onomatopeya del chapoteo
- **Po-po:** bozina / bocina
- **Punba | punbala egin:** jausi / caerse
- **Purrut:** puzkerra / pedo

- **Tarrat:** jantziak puskatu / rasgarse la ropa
- **Tas-tas:** ipurdikoa eman / pegar en el trasero
- **Tilin-talan:** 1.- kulunka aritzea / columpiarse
2.- kanpaiaren soinua / sonido de campana
- **Tipi-tapa:** oinez ibili / andar
- **Tirrin-tarran:** narras ibili, arrastaka ibili / arrastrarse
- **Tirrin-tirrin, trin-trin:** tinbrea / timbre
- **Tok-tok:** atea jo / tocar la puerta
- **Trakatan-trakatan:** zaldizka / al trote
- **Tuju-tuju:** eztula / tos
- **Txirrist egin:** irrist egin / resbalarse
- **Txis-pun:** suziriak / cohetes



Zeuek ere jarri zuenak!

¡Apuntad las vuestras!

.....

.....

.....


.....

.....

.....

gorputz atalak partes del cuerpo

- **Ahoa** / boca
- **Atzamarrak** / dedos de las manos
- **Begia** / ojo
- **Behatzak** / dedos de los pies
- **Belarria** / oreja
- **Besoa** / brazo
- **Eskua** / mano
- **Gerria** / cintura
- **Hanka** / pie, pierna
- **Izterra** / muslo
- **Kika**: hortza, hagina / diente
- **Kokota** / cogote
- **Oina** / pie
- **Pantorrila** / pantorrilla
- **Popa**: eperdia, ipurdia / culo
- **Popolina, potxolina, larrosatxua**: alua / rayita, vagina
- **Sama** / cuello
- **Sudurra** / nariz
- **Tirrina**: zilborra / ombligo
- **Titia**: bularra / pecho
- **Txatxurrak**: esne-hortza / diente de leche
- **Txata**: sudurra / nariz
- **Txilibitua, txistua**: zakila / pitilín, pene
- **Ulea, ilea** / pelo



jostailuak eta bestelako tresnak juguetes y otros objetos


- **Andrakila, kopina**: panpina / muñeca
- **Dilin-dalan**: kanpaia / campana
- **Din-dan**: zabua / columpio
- **Po-poa**: kotxea / coche
- **Pun-pun**: tiroa, eskopeta / tiro, escopeta
- **Pitxiak**: bitxiak / joyas
- **Tik-tak**: erlojua / reloj
- **Tilin-talan, txintxauna, txinboa**: zabua / columpio
- **Tilin-tolon**: zintzarria / cencerro
- **Txin-txin**: dirua / dinero
- **Txirrista**: txirrista / tobogán
- **Zinbulu-zanbulua**: zabua / columpio



Zeuek ere jarri zuenak!
¡Apuntad las vuestras!

animaliak animales


- **Arre-arre**: astoak edota zaldia aurrera egiteko onomatopeia / burro; onomatopeya para que el burro o caballo avance
- **Au-au, uau-uau, guau-guau, ba-bau**: txakurra edo txakurraren zaunka / perro o el ladrido del perro
- **Bee, bekereke**: ardia edo egiten duen soinua / oveja o el balar de la oveja
- **Bis-bis, pis-pis, mis-mis**: katuari dei egiteko onomatopeia / onomatopeya para llamar a los gatos
- **Kir-kir, txirritxirria**: kilkerra / grillo
- **Kli-klo**: zapoa edo egiten duen soinua / sapo o el sonido que produce
- **Kokoroko**: oiloa edo egiten duen soinua / gallina o el sonido que produce
- **Krua-krua**: igela edo egiten duen soinua / rana o el croar de la rana
- **Kua-kua**: ahatea edo egiten duen soinua / pato o el sonido que produce
- **Ku-ku**: kukua edo egiten duen soinua / cuco u el sonido que produce
- **Kukurruku**: oilarra edo egiten duen soinua / gallo, canto del gallo
- **Kurrin-kurrin**: txerria, txerriek egiten duten zarata / cerdo, gruñido que hacen los cerdos
- **Miau**: katua edo egiten duen soinua / gato o el maullido del gato
- **Mixinoa, pitxitxia**: katua / gato
- **Mu**: behia / vaca
- **Muuu**: behi orroa / mugido
- **Pipia**: oiloa edo edozein hegazti / gallina, pájaro, ave en general
- **Purrak**: oiloak / gallinas
- **Tomaki**: txakurra uxatzeko hitza / expresión para ahuyentar a los perros
- **Totoa**: txakurra / perro
- **Trakatan-trakatan**: zaldia / caballo
- **Txio-txio**: txoria edo haren kantua / pájaro o el canto del pájaro
- **Uxa**: oiloa uxatzeko erabiltzen den hitza / expresión para ahuyentar a las gallinas
- **Xapi**: katua uxatzeko hitza / expresión para ahuyentar a los gatos



Zeuek ere jarri zuenak!
¡Apuntad las vuestras!

jateko ordua! ¡a comer!

- **Bapo, papo:** amaitu dela esateko / para expresar que ha terminado
- **Dranga-dranga:** edan / beber
- **Kokoa, kokoloa:** txokolatea, gozokia / chocolate, golosina
- **Mama:** ura edo beste edozein likido / agua o cualquier otro líquido
- **Mau-mau:** jatearen onomatopeia / onomatopeya de la acción de comer
- **Nenea:** esnea / leche
- **Ñan-ñan, nan-nan:** jan / comer
- **Papa:** ogia / pan
- **Txitxia:** haragia, okela / carne
- **Txatxa, xaxa:** fruta / fruta



Zeuek ere jarri zuenak!
¡Apuntad las vuestras!

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Janariarekin lotutako esamoldeak

Expresiones relacionadas con la comida

- **Edan ur apur bat**.....Bebe un poco de agua
- **Gozo(a) dago, ezta?**.....¿Está bueno, eh?
- **Hartu ogia eskuan**.....Coge el pan con la mano
- **Jan ganoraz!**.....¡Come como es debido!
- **Korrokadarik ez bota mahaian!**.....¡En la mesa no se eructa!
- **Mizkina zara gero!**.....Mira que eres melindroso/a (de mal comer)
- **Ogia okerreko (kontrako) zulotik joan zait**.....Me he atragantado con el pan
- **Ondo al dago gazi-gezan?**.....¿Está bien de sal?
- **Ondo al dago hotz-beroan?**.....¿Está bien de temperatura?
- **Papo | bapo egin, e?**.....Terminalo, ¿vale?
- **Tripandia zara gero!**.....¡Eres un/a glotón/a!
- **Zatituko dizut okela?**.....¿Te parto la carne?
- **Zurrustadarik egin gabe edan!**.....¡No sorbas al beber!

esamoldeak expresiones

Hona hemen gure umeeekin egunero erabiltzen ditugun zenbait esamolde. Erabil itzazu, ikusiko duzu nola erantzuten duten.

He aquí algunas de las expresiones más utilizadas a la hora de comunicarnos con nuestros pequeños y pequeñas. Utilízalas, verás cómo responden.

- Aiko han! Hara hor! Gure pospolina etorri da eta**..... ¡Mira! ¡Aquí está la reina de la casa!
- Atzekoz aurrera jantzi duzu nikia!**.....Te has puesto el niqui del revés (Lo de atrás para adelante)
- Azpikoz gainera jantzi duzu nikia!**..... Te has puesto el niqui del revés (Lo de dentro hacia fuera)
- Badago musutxurik niretzat?**..... ¿Me das un besito?
- Baietz neuk irabazi!**.....¡A que gano!
- Bakarrik jaten trebea zara gero!**.....¡Muy bien, ya comes solo/sola!
- Beste egunen baten joango gara | Hurrengo baten joango gara**..... Iremos otro día
- Betondorik | betozkorik ez jarri**..... ¡No frunzas el ceño!
- Egin zintz!**..... ¡Suénate los mocos!
- Egizu putz puxika puzteko**..... ¡Sopla el globo para inflarlo!
- Egongo ote zara geldí?**..... ¿Pararás quieto/a?
- Erdu hona atoan! Joan egin behar dugu eta**..... ¡Ven aquí enseguida! Tenemos que irnos
- Erdu hona txikitxuari! Ekazu musutxua**..... ¡Ven aquí, chiquitín! Dame un beso!
- Esan txarreko halakoa!**.....¡Desobediente!
- Esanekoa bera!**..... ¡Qué obediente!
- Bai esanekoa!**
- Eskatu barkamena Garaziri**..... Pide perdón a Garazi
- Etorri amaren altzora!**..... ¡Ven al regazo de ama!
- Etorri pitxintxu, aurpegia garbitu behar dugu eta**..... Ven cariño, vamos a limpiarnos la carita
- Etorri zaitetz hona, eder hori!**..... ¡Ven aquí, cariño!
- Ez dio lebarik | Ez dio axola | Ez dio ardura**..... No importa | No pasa nada

Ez egin mainarik, txikitxu, altzoan eroango zaitut eta... *No seas mañoso/a, cariño, te llevaré en brazos*
 Ez harrotu!.....*¡No te pongas gallito/a!*
 Ez izan astoa | taketa | kirtena!.....*¡No seas bruto/a!*
 Garbitu bekarrak | piztak!.....*¡Quítate esas legañas!*
 Gaur zure eguna | urteguna | urtebetetze eguna da.....*Hoy es tu cumpleaños*
 Gure haurrak lo arina du.....*Nuestro/a hijo/a tiene el sueño ligero*
 Hagina kili-kolo dauka.....*Se le mueve un diente*
 Holantxe! Majo lotu dituzu zapatak!.....*¡Eso es! ¡Te has atado los zapatos muy bien!*
 Ipurdiko galanta hartu du!.....*¡Se ha dado un buen culetazo!*
 Lehen ikusi zaitut.....*Te he visto antes*
 Marixe bekaineko etorri zaio.....*Le está entrando un sueño...*
 Mikelek jo egin nau.....*Mikel me ha pegado*
 Mihina katuak jan dizu, ala?.....*¿Te ha comido la lengua el gato?*
 Mututu egin da.....*Se ha quedado mudo*
 Nor da amatxuren babalorea?.....*¿Quién es la hermosura de amaxu?*
 Oinez ikasi du.....*Ha aprendido a andar*
 Ortozik | oinutsik ez ibili, laztana!.....*¡No andes descalzo/a, cariño!*
 Puff, hatsa!.....*¡Qué mal huele!*
 Txapeldun! Dena jan duzu! Horrela handi-handi egingo zara!.....*¡Campeón/a! ¡Has comido todo!*
¡Así te harás muy grande!
 Zatoz hona, polit hori!.....*¡Ven aquí, mi vida!*
 Zer duzu, ba?.....*¿Qué te pasa?*
 Zer gura duzu, laztana? Ura gura duzu?.....*¿Qué quieres, cariño? ¿Quieres agua?*
 Zer gura duzu, polita?.....*¿Qué quieres, bonito/a?*

Zeuek ere jarri zuenak!
 ¡Apuntad las vuestras!

.....

Gaztelaniazko egiturak baztertu /
No utilicéis formas del castellano



- A lolo joango gara? **Lo egitera joango gara?**
- Gura duzu gozokis?..... **Gozokiak nahi dituzu?**
Nahi duzu gozokirik?
- Kontuz! jausi egingo zarela..... **Kontuz! jausi egingo zara**
- Laztana, bota siesta..... **Laztana, egin lo kuluxkatxoa**
- Mikelek jo egin dit..... **Mikelek jo egin nau**
Mikelek ostikada eman dit
- Nahi duzu gehiago oilaskoa?..... **Nahi duzu oilasko gehiago?**
Jango duzu oilasko gehiago?
- Nik de fresa nahi dut..... **Fresazkoa edo mailukizkoa nahi dut**
- ¡Qué rico!..... **Bai gozoa! Ze gozo!**
- ¿Te gusta el gorria?..... **Gorria gustatzen zaizu?**
- Umearen zorionak dira..... **Umearen (urtebetze-) eguna da**
- Zerez/zertaz mozorrotuko zara?..... **Zelan edo nola mozorrotuko zara?**



Erdarazko txikigarririk ez erabili /
No utilicéis diminutivos del castellano



- Egingo dugu lolitos? **Lo egingo dugu?**
- Hartu txupetito/bolsita **Hartu txupetetxoa/poltsatxoa**



Hitzei -a artikulua jarri /
No olvidéis poner el artículo -a



- Jango duzu bokadilo? **Jango al duzu bokadiloa?**
- Nahi duzu yogur?..... **Nahi al duzu jogurta?**



horrela ez!

¡Así no!

Hona hemen umeekin egiten ditugun ohiko akatsak, saiatu zuzentzen!

A continuación os mostramos algunos errores frecuentes que cometemos a la hora de hablarles en euskera a los niños y niñas.

¡Intenta corregirlos!



ariketak ejercicios

Gurasoon hizkuntza gaitasuna landu eta hobetzeko ariketak dituzue atal honetan.
He aquí algunos ejercicios para trabajar y mejorar vuestro nivel de euskera.

Zein da zuzena?

Bi esaldi hauetatik zein da zuzena? / ¿Cuál de estas dos frases es la correcta?

- | | |
|---|---|
| 1 - a) Biberonzito nahi duzu? | b) Biberioia hartuko al duzu? |
| 2 - a) Umearen urtebetetze eguna da | b) Umearen zorionak dira |
| 3 - a) De manzana nahi duzu? | b) Sagar zaporekoa nahi duzu? |
| 4 - a) Lotara joango gara? | b) Lolitos egingo duzu? |
| 5 - a) Askaltzeko bokadilo jango duzu | b) Askaltzeko bokadiloa jango duzu |
| 6 - a) Arre-arre egin eta zakurrak
aurrera egiten du | b) Arre-arre egin eta zaldiak aurrera egiten du |
| 7 - a) Kontuz! Labea fu-fu! | b) Kontuz! Labanak fu-fu! |
| 8 - a) Hartu karamelito | b) Hartu goxokitxoia |
| 9 - a) Muxutxos amamarentzat? | b) Amamari musutxo bat emango diozu? |
| 10- a) Parkean txirristan ibiliko gara | b) Parkean dar-darrean ibiliko gara |
| 11- a) Esan barkatu Garaziri | b) Eskatu barkamena Garaziri |
| 12- a) Beste egunean erosi genuen | b) Lehengo egunean erosi genuen |
| 13- a) Miren pilota ekarri du | b) Mirenek pilota ekarri du |
| 14 - a) Anek jo egin nau | b) Anek jo egin dit |
| 15 - a) Garbitu zara haginak / eskuak? | b) Garbitu dituzu haginak / eskuak? |
| 16 - a) Gorkak urtea bete du | b) Gorkak bat urte egin du |


1 b), 2 a), 3 b), 4 a), 5 b), 6 b), 7 a), 8 b), 9 b), 10 a), 11 b), 12 b), 13 b), 14 a), 15 b), 16, a)

Erantzunak / Respuestas

Falta den hitza jarri

Hiztegiko hitzetan oinarrituta ondorengo esaldiak osatu.
Rellena los huecos según las palabras del diccionario.

- Gure umeak lotarako _____ (txupetea) behar du.
- Kontuz platerarekin, _____ (erori) egingo dizu.
- Gure umetxoak esandako dena egiten du. Bai _____!
- Gure umeari jaten emateko lanak izaten ditugu. _____ da gero!
- Gure txikiak musua edonori ematen dio. Musu _____ da.
- Laztana, joango gara _____ (kalera)?
- Zopa bero-bero dago, _____ egin.
- Igerilekuan zer egiten du gure txikiak? _____
- Aitak _____ (subir a hombros) eramango zaitu.
- Arratsaldean nire aita eta ama etorriko dira. Gure umetxoaren _____ (abuelos).
- Gure umeak _____-hortza (diente de leche) ia erortzeaz du.
- Gure umeak besazpian kilimak ditu. Gustuko du _____ egitea.
- Bazkaltzeko ordua da. _____ egingo dugu?
- Osaba Mikel gure aitatzaren _____ da.
- Burrin-burrin, begira zer datorren hor: _____!
- Kontuz! _____ egin gabe, lurra bustita dago eta.
- Umm, bai _____. Den-dena jango duzu, ezta?
- Bart gauean _____ txarrak (pesadillas) egin ditu.
- _____ aurrera (del revés) ipini duzu kamiseta.
- Zer nahi duzu _____ (cariño)?
- Holantxe! _____ (muy bien) lotu dituzu zapatak!



1 tēta, 2 plasta, 3 esanekoa, 4 mizkina, 5 merkea, 6 apapan, 7 fu-fu, 8 plisti-plasta, 9 artelepo, 10 aitita-amama, 11 esne-hortza, txatxurra, 12 killi-killi, 13 nam-nam, 14 anaia, 15 autoa, kamioia..., 16 plasta, 17 goxoa, 18 amets, 19 atzekoz, 20 laztana, polita, bihotza... 21 maño

Erantzunak / Respuestas

haurrekin jolasteko juega con ellos y ellas

Laztana, jolasean egingo dugu? ¿A qué quieres jugar, cariño?


Egingo dugu ezkutaketan?.....¿Jugamos al escondite?
Harrapaketan ibiliko gara?.....¿Jugamos a pillar?
Egingo dugu futbolea?.....¿Jugamos al fútbol?

Linterna La linterna

Eseri gela ilun batean umea altzoan duzula. Linternaren argia gelan zehar mugitu eta argizatutako gauzen izenak esan. Eman aukera umeari linternarekin jolasteko eta berak argizatzen dituen gauzen izenak esan itzazu.

En una habitación oscura y con tu bebé en el regazo, mueve la linterna por la habitación y nombra las cosas que ilumina. Dale la linterna al bebé y nombra las cosas que ilumina.


- Zer da argitan dagoena?
- Baloia!



Zapiaren jokoa

El juego del pañuelo

- Non da umetxoa (izena jarri)?
- **Miren, Jagoba, Ainare...** ez dago' (umearen izena jarri)
- 'Bai, hemen!'



Hartu zapitxo bat, tapatu umeari aurpegia eta galdetu non dagoen.

Coge un trapo o paño de cocina, tápale la cara a tu niño o niña y pregúntale dónde está.

Umeari hortza erortzen zaionean


Quando se le cae un diente de leche



Esne-hortza (txatxurra) burkoaren azpian itxi edo teilatura bota eta hauxe esan:

Dejar el diente de leche debajo de la almohada o lanzarlo al tejado y recitar lo siguiente:

Maritxu teilatuko gona gorriduna eutsi hagin zaharra eta ekarri barria




Ikusi makusi

Juego del veo-veo

Ikusi makusi
zer ikusi?
hasten da, hasten da...

u letraz umea!



Zotz egitekoak

Para rifar


**Dona dona katona
Sutondoan aitona
Lepotik behera kutuna
Atera kanpora neska-mutil tuntuna
Don don, kikilimon,
sarrakuke, sarramon,
pike pike, tortolike,
ban bu, sirre keta, ke, bu**

Egin jolas zuen umetxoarekin berbetan irakasteko. Ume txikiak gustuko dute jolas sinpleen bidez gurasoekiko sortzen den gertutasuna eta harremana. Eta 'Non daukazu zure sudurtxoa?', 'Non dago zure hankatxoa?' edota 'Begira, zelako txakur handia dagoen hor!', 'Begira, hortik kamioi gorri-gorria dator!' eta antzekoak esanez, galdetuz edota objektuak eskuarekin markatuz hitzak erakusten dizkiozu umeari eta dakiena praktikatzeko tartea eskaintzen diozu.

Liburuxka honetan umeari hitz egiteko eta jolasteko hainbat baliabide dituzue, beraz, erabil itzazue.


Juega con vuestro hijo o hija para enseñarle a hablar. A los bebés les encanta la cercanía y la relación que se crea con sus padres y madres mediante los juegos más simples. '¿Dónde está tu nariz?', '¿dónde está tu pierna?' o '¡mira qué perro tan grande!', '¡mira, se acerca un camión rojo!'. Jugando con expresiones de este tipo y señalando con el dedo le estáis enseñando palabras a vuestro hijo o hija, y le ofrecéis una forma de practicar lo que sabe.

Además, en este librito tenéis varios recursos que podéis utilizar para hablar y jugar con vuestra hija o hijo, aprovechadlos.




Animalien


jolasa




nola egiten du...?




du-du
txakurra




krud krud
igela



kir-kir
kilkerra




kurrin-kurrin
txerria




miu
katua




txio-txio
txoria




kukurruku
oilarra




muu
behia



bee
ardia



kuu-kuu
ahatea



Atzamarren

jolasa



3 Hirugarren hori, punta behatz hori, beste guztien artian luzea da hori

2 Bigarrentxu hori, punta behatz hori, beste guztien artian nagia da hori

4 Laugarrentxu hori, punta behatz hori, beste guztien artian sendoa da hori

3 Atzamar luzea!

2 Atzamar nagia, alferra!

4 Atzamar erakuslea!

1 Atzamar txikia!

5 Atzamar lodia!

5 Bosgarrentxu hori, punta behatz hori, beste guztien artian lodia da hori

1 Lehenengotxu hori, punta behatz hori, beste guztien artian txikerra da hori

1 Lehenengotariko jostailua da

La mano es uno de los primeros juguetes


1 Honek egurra bildu zuen...

2 Honek sua piztu zuen...

3 Honek janaria erosi zuen...


4 Honek janaria prestatu zuen...

5 Eta potolo-potolo honek dena jan zuen...




Zenbakiak


1 2 3 4 5 6 7 8 9 10



zenbat daude?



6 sei



Sei arrautza ditugu saskian


3 hiru

Hiru perretxiko aurkitu ditugu basoan



4 lau

Lau pelotaxo ditu pailazoak




9 bederatzi

Bederatzi euli ditu bueltan gure Tomasa behiak


2 bi

Bi ahatetxo plisti-plasta putzuan



1 bat


Zuhaitz handi bat baserri atarian



10 hamar


10 sagar gorri ditu atariko zuhaitzak

7 zazpi



Zazpi azenario jaso ditugu baratzean


8 zortzi



Zortzi hanka ditu armiarnak

5 bost

Bost untxik osatzen dute familia hau














Koloreak

Zein duzu gustukoena?



- gorria ● arrosa
- berdea ● horia
- urdina ● beltza
- marroia ○ zuria



Bai goxoa!

Zer jango duzu gaur?



beroa
kalabaza pure bero-beroa



hotza
izozkia




gozoa
goxokia




solidoa
ogia

likidoa
esnea



gazia
urdaiazpikoa

mingotsa
pepinoa edo luzokerra



garratza
limoi zukua




Txapeldun!
Dena jan duzu!

¡Campeón!
¡Has comido todo!




Non dago Kati katua?

durrean, atzean, kanpoan, barruan, gainean, azpian



Katu kuxkuxeroa da Kati katua eta kaxa karratuan zer ote dagoen jakin gura du.


La gata Kati es una gata muy curiosa y quiere saber qué hay dentro de la caja cuadrada.



Jarraian eguneroko bizitzako egoera batzuk biltzen dituzten irudiak dituzu. Bertan ikusten denaz hitz egin umarekin eta horretarako hiztegiko hitzak erabiltzera anima zaitez.

Ikusi eta ikasi

Este apartado contiene algunas imágenes con escenas de la vida cotidiana. Habla con tu hijo o hija sobre lo que se muestra en esas imágenes y animate a utilizar las palabras del diccionario.



Ikusi eta ikasi

BAINUGELA

Azalpena

- | | |
|---------------------------------|---|
| 1 Eskuoihal (toalla) urdina | 7 Bainuko alfombra |
| 2 Hortzetako eskuila | 8 Neba-arrebak plisti-plasta bainuontzian |
| 3 Iturria | 9 Xaboi burbuilak |
| 4 Iturrian txatxurrak garbitzen | 10 Dutzako gortina |
| 5 Aitatxo ninia sikatzen | 11 Bainu-bata |
| 6 Etxeko zapatilak | |



Familia albuma

Album de familia




Umeeek gustuko dute argazkiak begiratu eta bertan ikusten denaz hitz egitea. Alboko laukietan familiako argazkia jarri eta hitz egin umearekin argazkiari buruz.

A los niños y niñas les encanta observar las fotografías y hablar sobre ellas. Pega una fotografía familiar en los recuadros y habla sobre lo que se ve en ellas.



abestu! ¡canta!



Abestiekin jolasean jaioberritatik (baita aurretik ere) has gaitezke. Hizkuntzak erabiltzen hasten diren neurrian, beraiek ere abestuz parte har dezakete. Hona hemen zure umeeekin abesteko kanta batzuk. Abesti batzuen bertsioak **ku-ku!** haurrekin hitz egiteko online jokoan entzun ditzakezue www.emangiltza.eus atarian sartuta.

Podemos empezar a jugar con las canciones desde que nuestros hijos e hijas son bebés o incluso antes de nacer. A medida que empiecen a hablar, también cantarán.

*He aquí algunas canciones para que cantéis con vuestros hijos e hijas; además, las versiones de algunas de estas canciones las puedes escuchar en la aplicación **ku-ku!** haurrekin hitz egiteko online jokoan, entrando en la web www.emangiltza.eus.*

Txalo pintxalo / Eragioizu / Kinkirrinera / Pintxo / Arre arre mandako / Din dan / Ran roberra

Pintto

Pintto, pintto
gure txakurra da ta
Pintto, pintto
bere izena du

Zuri beltza da ta
ez du koska egiten
begi bat ixten du
jolastu nahi badu

Pintto, pintto...

Belarriak luze,
isatsa jostakin,
kalera irteteko
beti presarekin.

Pintto, pintto...


Gure txakurtxo
ez da ehiztaria,
bere lagun ditu
txoritxo guztiak.

Pintto, pintto...

Zaunkaka hastean
gaiztoa dirudi,
axaxatuz gero,
doa beti ihesi.

Pintto, pintto...

Saguak harrapatzen
trebea ez dugu,
haiek ikustean
ihes egiten du.



Abestiaren letra jarraitu eta begia itxi
Seguir la letra de la canción y guiñar un ojo (begia)

Kinkirrinera

Ala kinkirrinera
ala xamurrera
“haurren izena” plaza berriko
jira hadi beste aldera

Korro bat osatuta abestekoa
Para cantar en corro

Din dan

Din dan
nor hil da
Peru zapataria
Zer egin dau pekatu
auzoko txakurra urkatu.
Hori baino ez badau egin
beharko jako
par-ka-tu

Umea altzoan duzula abestekoa
Para cantar con la niña o el niño en el regazo (altzoa)

Arre arre mandako

Arre arre mandako
bihar Tolosarako
etzi Iruñarako
handik zer ekarriko?
zapata ta gerriko!
hauek zeinentzako?
zuretzako!

Umea altzoan duzula abestekoa
Para cantar con la niña o el niño en el regazo (altzoa)



Abesti bera modu
ezberdinetan abes
dezakegu: haserre,
barrezka, astiro, azkar...
Oso dibertigarria izaten
da eta hizkuntzarekin
jolasteko abiapuntu ona
da. Edozein abestirekin
egin daiteke.

*Podemos cantar la misma
canción de forma diferente:
enfadados o enfadadas,
riéndonos, despacio,
deprisa... Es muy divertido y
una buena manera de jugar
con el lenguaje. Cualquier
canción se presta a este
juego.*

Musikarekin jolasteaz
gain, letrarekin ere jolas
dezakegu: bertsioak
asmatu, letra berria
jarri... Hor bete-betean
ariko gara hizkuntzarekin
jolasten.

*También podemos jugar
con las letras: inventando
versiones, añadiendo
palabras nuevas... En ese
caso estaremos jugando
plenamente con el idioma.*

Ran rober ran

Uztaia gora gora
lurretik zerura
orain alde batera
ta gero bestera
ta behera, behera, behera
ta behera behera bai
uztai barruan preso
gelditu naiz orain
ran rober ran po, po, po, po, po, po, po, po
ran rober ran po, po, po, po, po, po

Uztai bat hartu eta abestiak esandakoa jarraitu
Con el aro en la mano seguir las indicaciones de la canción

Txalo pin txalo

Txalo pin txalo
txalo ta txalo
katutxoa mizpiraren gainean dago
badago bego bego badago
“noren” (umearen izena) zapatatxuari begira dago

Eskuekin jolas eginez abestekoa
Para cantar y jugar con las manos (eskuak)

Eragiozu

Eragiozu eskutxoari
behin batera
ta gero bestera

Eskuekin jolas eginez abestekoa
Para cantar y jugar con las manos (eskuak)



Sorgina pirulina

Sorgina pirulina,
erratza gainean,
ipurdia zikina,
kapela buruan.

Sorgina, sorgina,
ipurdia zikina.
Tentela zara zu?
Ezetz harrapatu...

Hau dok umorea

Hau dok, hau dok,
hau dok umorea,
kontsolatzeko, kontsolatzeko,
euskaldun jendea.

Kalean gora, kalean behera,
kalean gora zezena, ai aiaiai!
Kalean gora, kalean behera,
kalean gora zezena.

Kalean gora, kalean behera,
kalean gora zezena, ai aiaiai!
kalean gora, kalean behera,
kalean gora zezena.

Txiki, txiki, txikia

Txiki, txiki, txikia
ikusten naiz kalean.
Handitzen handitzen,
hasi naiz handitzen
txikia izanik
asko maite zaitut nik.

Bi begi ikusteko,
bi belarri entzuteko.

Handitzen, handitzen...

Ahoa dastatzeko
sudurra usaintzeko,

Handitzen, handitzen...

Eskuak ukitzeko,
bi oinak ibiltzeko

Handitzen, handitzen...

Burua pentsatzeko,
bihotza maitatzeko.

Handitzen, handitzen...

Eskuekin jolas eginez abestekoa
Para cantar y jugar con las manos (eskuak)

Xoxoak galdu du mokoak

Xoxoak galdu du mokoak,
mokoak xoxoa gaixoak,
nola kanta, nola xirula,
nola kanta xoxoak?

Xoxoak galdu du begia,
begia, mokoak, gaixoak,
nola kanta, nola xirula,
nola kanta xoxoak?

Xoxoak galdu du burua,
burua, begia, mokoak, gaixoak,
nola kanta, nola xirula,
nola kanta xoxoak?

Xoxoak galdu du lepoa,
lepoa, burua, begia, mokoak, gaixoak,
nola kanta, nola xirula,
nola kanta xoxoak?

Xoxoak galdu du hegoa,
Hegoa, lepoa, burua, begia, mokoak, gaixoak,
nola kanta, nola xirula,
nola kanta xoxoak?

Xoxoak galdu du bularra,
Bularra, hegoa, lepoa, burua, begia, mokoak,
gaixoak,
nola kanta, nola xirula,
nola kanta xoxoak?

Xoxoak galdu du buztana,
Buztana, bularra, hegoa, lepoa, burua, begia,
mokoak, gaixoak,
nola kanta, nola xirula,
nola kanta xoxoak?



Loa-loa

Loa-loa ttunttulunberde,
loa-loa masusta.
Aita gurea Gasteizen da,
ama mandoan hartuta.

Aita gurea Gasteizen da
ama mandoan hartuta.
Loa-loa ttunttulunberde,
loa-loa masusta.


Binbili-bonbolo

Binbili-bonbolo
senda lo,
akerra Frantzian balego,
astoak kanta,
idiak dantza,
ahuntzak danbolina jo.

Binbili-bonbolo
senda lo,
akerra frantzian balego,
astoak kanta, idiak dantza,
ahuntzak danbolina jo,
danbolina jo.

Saltoka

Saltoka, saltoka
nabil ni gustura,
salto eta salto
bat sartu arte.
Sartu dadila (...izena...)*
Eta biok elkarrekin
salto eta salto bat irten arte.
Eman ezazu buelta eta irten zaitetz.



Dringilin-dron

Dringilin-dron, gaur gabon,
sabela betea daukat eta
besteak hor konpon.

Mazkelo bete aza egosi,
hori, zuri ta gorriak:
berehala iruntsi neutsazan
azkenengoko orriak.

Hiru hortzeko tresnatxo batez
morokilore bailitzan,
ezti lapiko handitxo bati
barrua huts-huts egin neutsan.

Txinkirrikixin

Txinkirrikixin
Bilbora noa.
Txinkirrikixin
zer egiten?
txinkirrikixin
amantaltxo bat
txinkirrikixin
erosten.

Txinkirrikixin
atzo nintzen Bilbora.
Txinkirrikixin
tomate berdetan

Txinkirrikixin
Bilbora noa.
Txinkirrikixin
zer egiten?
txinkirrikixin
makailutxo.
Txinkirrikixin
ekarten.

Patatadun tortilla

Patatadun tortilla
borobil-borobila
niri gustatzen zait
piriban paraban
salto egitea | lurrean jartzea... (ekintza bat)

Dilin-dalan

Dilin-Dalan,
bihar jai,
eskolarik ez,
aitaxorekin ta amatxorekin
paseatzera,
dilin, dalan

Dilin dalan...



Kanuto

Egun baten Kanuto
kalera joan zan,
karruak zapalduta
etxera joan zan.

Amak esan ei eutsan
lotara joateko,
atzera kontestau eutsan
ez dot nahi amatxo.

Kanuto Zizilindro,
zilindro, Zilindro,
Kanuto Zizilindro...
pux! pux! pux!



Argitalpenak Publicaciones

Euskarazko argitalpen ugari aurki daitezke merkatuan ume eta gaztetxoentzat. Dena den, aukera bikaina da udal liburutegiak erabiltzea. Zure herriko liburutegiak euskarazko baliabide askorik ez badauka, ez etsi eta eskatu euskarazko liburuak, eta bien bitartean, erabili beste aukera batzuk umeei euskarazko baliabideak eskaintzeko (esaterako, trukatu liburuak beste guraso batzuekin). Horrez gain, jakizu Bizkaiko udal eta mankomunitateetako euskara zerbitzu askok urtero urtero argitaratzen dutela (Gabonak aldera) Euskarazko Produktuen Katalogoa eta bertan informazio baliagarria aurkituko duzuela euskarazko liburu, disko eta beste gai batzuei buruz, batez ere, argitaratu berri direnei buruz (www.katalogoa.eus).


En el mercado se pueden encontrar numerosas publicaciones en euskera para el público infantil y juvenil. De todos modos, es importante hacer uso de las bibliotecas públicas. Si la biblioteca de tu municipio no cuenta con mucho volumen en euskera, no hay que desanimarse, puedes solicitarlos o buscar otras fórmulas para proporcionar materiales en euskera a los niños y niñas (intercambio de libros con otros padres y madres...). Además, los servicios de euskera de un buen número de ayuntamientos y mancomunidades de Bizkaia publican anualmente (en fechas cercanas a las Navidades) un catálogo de productos en euskera en el que podrás encontrar información sobre libros, discos y otros materiales, atendiendo especialmente a las novedades del año en curso (www.katalogoa.eus).

Liburuak Libros

Gai honi buruzko informazio gehiago honako liburu hauetan aurki dezakezue:

Si queréis ahondar más en alguno de estos temas podéis consultar la siguiente bibliografía:

- Haur hizkera. Joseba Aurkenerena, Covadonga García, Jon Zelaia (Gero argitaletxea).
- Ahozko literatura: genero txikiak. Hainbat idazle, Gauontza sorta. Labayru ikastegia.
- Ume hizkuntza eta lexikoa. M^a Eugenia Markaida.
- Umeen berbak direla eta. Iñaki Gaminde.
- GALDEZKA liburuaren atal bat: umeen kontuak (IVAP).
- Betiko jolasak. Oiartzungo Udala.
- Ume txikientzako kantu eta jolasak. Bergarako Udala, 2001.
- Kukuketan, jolaserako kanta. Xirula-mirula, 2005.
- Kantu eta jolasak. Debagoieneko mankomunitatea, 2005.
- Euskal jolasen bilduma (I eta II). Urtxintxa eskola.
- Txanpirin pintxona. Haur kanta. Imanol Urbietta, Elkar
- Olentzero eta haurrentzako kanta. Susaeta Ediciones, S.A.
- Hizkuntzen munduan gozatuz/*Disfrutando de los idiomas*. Alkarbide
- Ume elebidunen gurasoentzako eskuliburua. Alkarbide
- Herri kanta haurrentzat. Susaeta, 2009
- Katramila goizetik gauerako abesti-jolasak, Urtxintxa eskola, 2009



egin

ku-ku!





ku-ku!

haurrekin hitz egiten hasteko

- Abadiñoko Udala
- Abanto-Zierbenako Udala
- Basauriko Udala
- Bilboko Udala
- Durangoko Udala
- Enkarterriko Udal Mankomunitatea
- Erandio Elizateko Udala
- Ermuko Udala
- Fruizko Udala
- Gernika-Lumoko Udala
- Getxoko Udala
- Laukizko Udala
- Maruri-Jatabeko Udala
- Muskizko Udala
- Ortuellako Udala
- Portugaleteko Udala
- Santurtziko Udala
- Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
- Zaldibar Elizateko Udala

Egileak

ALKARBIDE, BIZKAIKO EUSKARA ZERBITZUEN BILGUNEA
UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELK.

www.emangiltza.eus